Junta General del Valle de Roncal
Erronkaribarko Batzorde Nagusia

**ERRONKARIBARKO BATZORDE NAGUSIAK 2026KO OTSAILAREN 3AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

2026ko otsailaren 3ko 18:00etan, Erronkaribarko Etxean, Batzorde Nagusiak ezohiko osoko bilkura egin du, Asier Gil Artuch idazkaria bertan izanik eta Amparo Viñuales Gale Erronkariko Aiza Bulguko alkatea Batzordeburu izanik.

Gainerako hirien izenean ordezkari hauek bertaratu dira:

UZTARROZE: Belen Marko Indurain

IZABA: Carlos Anaut Abadia eta Karin Hübner

URZAINKI: Tomas Urzainqui Mina eta Juan Carlos Urzainqui Salvoch

GARDE: Erika Ergueta Fernandez

BIDANKOZE: Tomas Pasquel Ayechu

BURGI: Flavien Paget eta Iñaki Lacasia Fernandez

<u>GAI-ZERRENDA HASI AURREKO AURKEZPENA</u>

Hitza eman zaio AEIOZU elkarteko Edurne Almirantearenari. Elkarte hori Nafarroako Pirinioetan eraldaketa sozialeko eragile gisa aritzen da, teknologia erabiliz sare komunitarioa indartzen eta arrakala digitala arintzen, lehendik dauden zerbitzuak bikoiztu gabe.

Azaldu duenez, aurkezpenaren helburua elkartearen lana ezagutaraztea da, dirulaguntzetara aurkezteko erakundeen laguntza behar baitu, eta batzuetan horiek ez dute elkartearen jardueren berri.

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL CELEBRADA EL DÍA 03 DE FEBRERO DE 2026**

En la villa de Roncal, en la Casa del Valle, siendo las 18:00 horas del día 03 de febrero de dos mil veintiséis, con asistencia del Secretario D. Asier Gil Artuch y bajo la Presidencia de la alcaldesa de la Villa de Roncal Dña. Amparo Viñuales Galé, que concurre representando a esta Villa, junto con D. Jesús Cruchaga Mainz se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión extraordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

UZTARROZ: Dña. BELEN MARKO INDURAIN.

ISABA: D. CARLOS ANAUT. DÑA KARIN HÜBNER.

URZAINQUI: D.TOMAS URZAINQUI MINA, D. JUAN CARLOS URZAINQUI SALVOCH

GARDE: Dña. ERIKA ERGUETA FERNANDEZ

VIDANGOZ:D. TOMÁS PASQUEL AYECHU.

BURGI: D.FLAVIEN PAGET. D. IÑAKI LACASIA FERNANDEZ.

<u>PRESENTACIÓN PREVIA AL INICIO DEL ORDEN DEL DÍA</u>

Se da la palabra a Dña. Edurne Almirantearena, que acude en representación de la asociación AEIOZU, que actúa como agente de transformación social en el Pirineo Navarro, utilizando la tecnología para fortalecer el tejido comunitario y paliar la brecha digital, sin duplicar servicios ya existentes.

Explica que el objetivo de la presentación es dar a conocer la labor de la asociación, dado que en ocasiones para presentarse a subvenciones se solicita la

Hauek dira elkartearen lau jarduera-ardatzak:

1. Etxe konektatuak: Bermatzea inor ez dela geratuko bizitza komunitario, kultural edo administratibotik kanpo gaitasun digitalik ez izateagatik.

2. Sareak kontuz: Heziketa digitala eta etikoa, edukien eta sareen azterketa kritikoa sustatuz; aurten gazteak inplikatuko dira podcast bat egiteko.

3. Memoria IKTekin: Pirinioetako ondare immateriala berreskuratzea eta belaunaldi berriei transmititzea.

4. Laguntza espezifikoak: Bazterketa-egoera bizi duten kolektiboentzako esku-hartzeak; adibidez, oinarrizko osasunari buruzko prestakuntza.

Tomas Urzainqui Minak adinekoak inplikatzeko moduari buruzko kontsulta egin du. Edurnek azaldu du parte-hartzea handitzen dela konfiantzazko norbaitek bertaratzera animatzen duenean, eta adibide gisa Otsagabiaren kasua jarri du: Asistentzia 7 pertsonatik 50era igo zen, herriko medikuak gomendatu ondoren.

1. BATZORDEBURUAREN EBAZPENAK

01/2026 Ebazpena, urtarrilaren 29koa

01/2026 Ebazpenaren berri eman da, urtarrilaren 29koa. Horren bidez, Antonia Aznarez Burdaspalek aurkeztutako eskaera eta Izabako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emandako txosten soziosanitarioa ikusirik, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua ematea

colaboración de entidades que desconocen sus actividades.

Explica los cuatro ejes de actuación:

1. Hogares conectados: Garantizar que nadie quede excluido de la vida comunitaria, cultural o administrativa por falta de competencias digitales.
2. Redes con cuidado: Educación digital y ética, fomentando el análisis crítico de contenidos y redes; este año se implicará a jóvenes en la realización de un podcast.
3. Memoria con TICs: Recuperación del patrimonio inmaterial del Pirineo para hacerlo accesible a nuevas generaciones.
4. Acompañamientos específicos: Intervenciones para colectivos con barreras de exclusión, por ejemplo, formación en salud básica.

D. Tomás Urzainqui realiza una consulta sobre cómo implicar a personas mayores. Se indica que la participación aumenta cuando alguien de confianza anima a asistir, poniendo como ejemplo Ochagavía, donde la asistencia pasó de 7 a 50 personas gracias a la recomendación del médico local.

1º.- RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA.

Resolución 01/2026 de fecha 29 de enero de 2026

Se da cuenta de la Resolución nº 01/2026, de fecha 29 de enero de 2026, dictada por la Presidenta de la Junta General del Valle de Roncal, por la que, a la vista de la solicitud presentada por Dña. Antonia Aznárez Burdaspal y del informe socio-sanitario emitido por el Servicio Social de Base de Isaba, se acuerda concederle el Servicio de Atención a

erabaki da. Eskatzaileak Ordenantzan ezarritako tasak ordaindu beharko ditu.

02/2026 Ebazpena, urtarrilaren 30ekoa.

02/2026 Ebazpenaren berri eman da, urtarrilaren 30ekoa, Erronkaribarko Etxea eraberritzeko obren lizitazioa esleitu gabe utzi duena, ezarritako epean ez baita eskaintzarik aurkeztu, eta espedientea artxibatzea xedatu duena, kontratazio prozedura berri bat hasteko aukerari kalterik egin gabe.

Tomas Urzainqui Minak auzitan jarri du ebazpenean Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 artikulua sartu izana, uste baitu Batzordeburuari ez dagozkiola artikulu horretan zerrendatzen diren alkateen funtzioak. Idazkariak erantzun dio Erronkaribarko Batzorde Nagusiak toki-erakunde izaera duela 6/1990 Foru Legearen 3.1.c artikuluaren arabera, eta bertan jasotzen diren eginkizunak aplikatzekoak zaizkiola bai Batzordeari bai Batzordeburuaren eskumenei; hori guztia aipatutako Foru Legearen 45.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. ERRONKARIBARKO ETXEA ERABERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN AGIRIA ALDATZEA ONESTEA

2026ko urtarrilaren 30eko 02/2026 Ebazpenaren bidez, Erronkaribarko Etxea eraberritzeko obren lizitazioa esleitu gabe utzi zen. Azaldu denez, proiektua idatzi duen arkitektoarekin hitz egin ondoren, komenigarritzat jo da enpresa lizitatzaileen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko aukerak zabaltzea, eskaintzak jasotzea errazteko; hori guztia

Domicilio, debiendo abonar las tasas establecidas en la Ordenanza vigente.

Resolución 02/2026 de fecha 30 de enero de 2026.

Se da cuenta de la Resolución nº 02/2026, de fecha 30 de enero de 2026, dictada por la Presidenta de la Junta General del Valle de Roncal, por la que se declara desierta la licitación de las obras de rehabilitación del edificio de la Casa del Valle de Roncal, al no haberse presentado ninguna oferta dentro del plazo establecido, y se dispone el archivo del expediente, sin perjuicio de la posible iniciación de un nuevo procedimiento de contratación.

D. Tomás Urzainqui Mina cuestiona la inclusión en la resolución del artículo 21.1 de la Ley de Bases de Régimen Local, porque entiende que la Presidenta no ejerce funciones de los alcaldes que se enumeran en dicho artículo. Se responde por parte del secretario que, teniendo la Junta General del Valle de Roncal la condición de entidad local reconocida en el artículo 3.1.c de la Ley Foral 6/1990, y siendo de aplicación a la misma las funciones previstas en el citado precepto, dichas funciones resultan asimismo aplicables a la Presidencia de la Junta General del Valle de Roncal, en el ejercicio de las materias propias de su ámbito competencial, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 45.2 de la mencionada Ley Foral.

2º.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LOS PLIEGOS DE CONDICIONES ECONÓMICO ADMINISTRATIVAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DE LA CASA DEL VALLE.

Habiéndose declarado desierta la licitación de las obras de rehabilitación del edificio de la Casa del Valle de Roncal mediante Resolución nº 02/2026, de 30 de enero de 2026, se expone que, tras mantener conversaciones con la arquitecta redactora del proyecto, se ha considerado conveniente ampliar las opciones

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 16. eta 17. artikuluetan xedatutakori jarraikiz.

Adierazi da obren proiektu teknikoak ez duela inolako aldaketarik izan, eta horregatik ez zaiela berriz ere bidali batzordekideei; eta harekin desadostasunik ez dagoenez, ez dela beharrezkoa izan proiektua berriz onestea.

Ondoren, idazkariak xehatu ditu kaudimen-irizpideak aldatzearen ondorioz administrazio-klausulen agirian egindako aldaketa nagusiak, eta adierazi du indarrean dagoen araudiarekin bat datozela.

Urzainkiko ordezkaritzak proiektuaren lizitazioaren aurkako botoari eutsi dio, 2025eko leinabentuaren 12ko osoko bilkuran azaldu zituen arrazoi berberengatik.

Jarraian, baldintza ekonomiko administratiboen agiria aldatzeko proposamena bozkatu da, eta Batzordeak gehiengoz onetsi du, Urzainkiko ordezkaritzaren aurkako botoarekin.

3. 2026 BASO-JARDUKETEN PROIEKTUA ETA HAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZEN AGIRIA ONESTEA

Pisten gaiari dagokionez, Tomas Urzainqui Minak adierazi du ibarreko pista-sarearen 5-10 urtera begirako plangintza orokor bat egin behar dela, dauden pistak zein egiteke daudenak barne hartuta, Batzorde Nagusiaren titulartasunekoak izan ala ez, eta proposatu du plangintza horretan pista berriak ere sartzea.

para la acreditación de la solvencia económica, financiera y técnica de las empresas licitadoras, con el fin de favorecer la concurrencia, todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 16 y 17 de la Ley Foral 2/2018, de Contratos Públicos.

Asimismo, se hace constar que el proyecto técnico de las obras no ha sufrido modificación alguna, por lo que no ha sido remitido nuevamente a los/as representantes de la Junta, indicando que, en la medida en que no existan discrepancias con el mismo, no resulta necesaria una nueva aprobación del proyecto. A continuación, el Secretario explica a los/las presentes los principales cambios introducidos en el pliego de cláusulas administrativas, derivados de la modificación de los criterios de solvencia, quedando constancia de que se ajustan a la normativa vigente.

La representación de Urzainqui mantiene su voto en contra de la licitación del proyecto, por las mismas razones que se expusieron en la sesión celebrada el 12 de noviembre de 2025.

Sin que nadie más tenga nada que añadir se procede a la votación de la propuesta de modificación que queda aprobada por mayoría de los presentes, con el único voto en contra de la representación de Urzainqui.

3º.-APROBACIÓN DEL PROYECTO DE ACTUACIONES FORESTALES 2026 Y LOS PLIEGOS QUE REGIRÁN SU CONTRATACIÓN.

En relación con el asunto de las pistas, D. Tomás Urzainqui manifiesta la necesidad de realizar una planificación global de la red de pistas del Valle, a un horizonte de 5 a 10 años, que incluya tanto las pistas existentes como aquellas que falten por ejecutar, con independencia de que sean o no de titularidad de la Junta General, proponiendo que dicha

Tomas Pasquel Ayechuk adierazi du azkeneko urteotan Batzorde Nagusiarekin lanean aritu den mendi-ingeniariak, Jose Miguel Iturri Bustok, sakon ezagutzen dituela pisten egoera eta beharrak, horren gainean etengabe lan egin baitu.

Carlos Anaut Abadiaren ustez, plangintza hori dagoeneko egiten ari da Abeltzaintza, Basogintza, Ingurumen eta Errege Bardeen batzordearen bidez, bertan aztertzen baitira sortutako beharrak eta jasotako proposamenak, eta gero horiek Jose Miguel Iturri Busto ingeniariari bidaltzen baitzaizkio, berak aztertu eta gauzatu ditzan. Hori dela eta, ez du beharrezkotzat jotzen hain epe luzerako plangintza itxi bat egitea, ezustekoak egon daitezkeelako. Tomas Pasquel Ayechuk iritzi horrekin bat datorrela adierazi du.

Batzordeburuak proposatu du aurtengo proiektua onesteko bozketa egitea, eta Jose Miguel Iturri Bustori plangintza bat eskatzeko aukera zabalik uztea, eta ondoren dagokion batzordeari bidali eta azter dadin.

Tomas Urzainqui Minak proposatu du aurrekontu-partidak bereiz litezkeela: batetik, oraingo pistak konpontzeko eta ezustekoei aurre egiteko partida bat, eta, bestetik, pista berriak egitekoa.

Jesus Cruchaga Mainzek proposatu du, lanak egiterakoan, pisten ohiko erabiltzaileak kontuan hartzea eta haiei obretarako aurreikusitako datak eta gutxi gorabeherako iraupena aldez aurretik jakinaraztea.

Azkenik, bozketa egin da, eta Batzordeak gehiengoz honako hauek erabaki ditu, Urzainkiko ordezkaritzaren

planificación contemple también la apertura de nuevas pistas.

D. Tomás Pasquel Ayechu señala que el ingeniero de montes que viene colaborando con la Junta General en los últimos años, D. José Miguel Iturri Busto, conoce en profundidad el estado y las necesidades de las pistas, dado que ha venido trabajando de forma continuada sobre las mismas

En este sentido el representante de Isaba D. Carlos Anaut Abadía entiende que dicha planificación ya se viene realizando, en la medida en que en la Comisión de Ganadería, Forestal, Medio Ambiente y Bardenas Reales se van analizando las necesidades que van surgiendo, así como las propuestas que se reciben, las cuales se trasladan al ingeniero D. José Miguel Iturri Busto para su valoración y ejecución, no considerándose necesaria una planificación cerrada a tan largo plazo debido a la existencia de posibles imprevistos. D. Tomás Pasquel Ayechu muestra su acuerdo con esta postura.

Por su parte, la Sra. Presidenta propone someter a votación la aprobación del proyecto correspondiente al presente año, dejando abierta la posibilidad de solicitar a D. José Miguel Iturri Busto una planificación para que sea remitida a la comisión correspondiente para su estudio.

D. Tomás Urzainqui añade que se podrían diferenciar partidas presupuestarias destinadas al arreglo de pistas existentes, es decir, a arreglos e imprevistos y otras para la ejecución de nuevas pistas.

D. Jesús Cruchaga Mainz añade que, a la hora de realizar los trabajos, se tenga en cuenta a las personas usuarias habituales de las pistas y se les informe con antelación de las fechas previstas de ejecución de los trabajos y de su duración aproximada.

abstentzioarekin, bide-sare osoaren plangintza bat egon behar dela iritzita:

1.- "2026ko baso-jarduketen proiektua" onestea, 133.949,88 euroko aurrekontuarekin, BEZik gabe (162.079,35 euro, BEZa barne). Jarduketa hori prozedura irekiaren bidez esleituko da.

Pista hauetan eginen dira lanak: Sasi (Burgi), La Corona (Urzainki), Mendigatxa (Erronkari) eta Zaltua (Izaba).

Lanak egiteko gastua 2026ko aurrekontuko 1.4121.6090001 kontu-sailaren kargura finantzatuko da.

2. Kontratazioa arautuko duten funtsezko baldintzak onestea, Kontratuaren Oinarrizko Lege gisa.

3. Acer agroforestal enpresari esleitzea obren zuzendaritza eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa.

4. Batzordeburuari eskumena ematea "2026ko baso-jarduketen proiektuari" dagokion obra-kontratua esleitzeko, kontuan hartuta kontratazioa arautzen duen baldintzen agirian adierazitako eta izendatutako unitate kudeatzaileak enpresen proposamenak eta eskaintzak aztertu eta baloratuko dituela.

5. Batzordeburuari eskumena ematea behar diren kontratuak idatzi eta sinatzeko.

<u>4. UZTARROZEKO BORTUKO LARREAK KUDEATZEKO PLANA ONESTEA</u>

Nafarroako Gobernuko teknikariek Uztarrozeko bortuko larreak kudeatzeko

Finalmente y en relación a las actuaciones forestales a llevar a cabo en los montes propiedad de esta Junta General, este año 2026, se acuerda, con la abstención de la representación de Urzainqui por entender que tiene que haber una planificación de los trabajos a realizar en toda la red viaria del Valle y con el voto favorable del resto de las representaciones, lo siguiente:

1.- Aprobar el "Proyecto de actuaciones forestales, año 2026", con un presupuesto de 133.949,88 euros IVA EXCLUIDO, 162.079,35 IVA INCLUIDO. Esta actuación se adjudicará mediante procedimiento abierto.

Se explica que la actuación está prevista en la pista de Sasi, en Burgui, en la pista de la Corona, en Urzainki, en la pista de Mendigatxa en Roncal y en la pista de Zaltua en Isaba.

El gasto para la realización de los trabajos se financiará con cargo a la partida 1.4121.6090001 del presupuesto de gasto de 2026.

2.- Aprobar las Condiciones Esenciales que, como Ley Fundamental del Contrato, regirán en la contratación.

3.- Adjudicar a Acer Agroforestal la dirección de las obras indicadas en el Proyecto de referencia, así como la coordinación de la Seguridad y Salud.

4.- Facultar a la Sra. Presidenta para adjudicar el contrato de obra referido al "Proyecto de actuaciones forestales, año 2026", habida cuenta que las propuestas y ofertas de las empresas interesadas en llevar a cabo los trabajos, serán analizadas y valoradas por la unidad gestora nombrada e indicada en el Pliego que rige la contratación.

5.- Facultar asimismo a la Sra. Presidenta para la redacción y firma de los contratos correspondientes.

Plana aurkeztu, Jesus de Miguel Layanak egindako ekarpenak kontuan hartu eta Abeltzaintza, Basogintza, Ingurumen eta Errege Bardeen batzordeak gaia aztertu ondoren, Batzorde Nagusiari plan horren behin betiko testua aurkeztu zaio, jakinaren gainean egon dadin.

Larreak kudeatzeko Planaren helburu nagusia da Uztarrozeko bortuko egungo erabileraren egoera diagnostikatzea eta, diagnostiko horretatik abiatuta, larreen erabilera jasangarria planifikatzea, haiei lotutako abeltzaintzako ustiategien beharrak lehen lerroan jarriz. Ildo horretan, planak ez du herri-lurrak aprobetxatzeko modurik inposatu nahi; aitzitik, lurraldearen kudeaketan inplikatutako eragileen ezagutza eta esperientziatik abiatuta eta aholkularitza teknikoaren laguntzaz, adostasunak lortu nahi ditu larreen aprobetxamendu jasangarria ziurtatzeko eta bortuaren egoera hobetzeko neurriak definitzeko, hori dena abeltzaintzako ustiategien erabilera errazteko eta indartzeko.

Tomas Urzainqui Minak hartu du hitza, eta adierazi du aurka bozkatuko duela planak hartu duen norabideagatik eta Nafarroako Gobernuaren inposiziotzat jotzeagatik, eta honako arrazoi hauek aktan jasotzeko eskatu du:

*1- Ez dira kontuan hartu bertan abereak larratzen dituzten abeltzainen beharrak. Abeltzaintza estentsiboa ezinbestekoa da klima aldaketa eta despopulazioa iraultzeko.*

*2- Erronkaribarko Mankomunitatea eta Batzorde Nagusia izatearen arrazoi nagusia da, hain zuzen ere, herri-lurren titulartasuna*

<u>4º.- APROBACIÓN DEL PLAN DE GESTIÓN PASCÍCOLA DEL PUERTO DE UZTÁRROZ.</u>

Tras haber sido tratado el Plan de Gestión Pascícola del puerto de Uztárroz en el seno de la Comisión de Ganadería, Forestal, Medio Ambiente y Bardenas Reales, presentado por técnicos del Gobierno de Navarra y habiéndose tenido en cuenta las aportaciones realizadas por D. Jesús de Miguel Layana, se presenta a la Junta General el texto definitivo del citado plan para su conocimiento.

Se deja constancia de que el Plan de Gestión Pascícola tiene como objetivo fundamental diagnosticar el estado actual del manejo del puerto de Uztárroz y, a partir de dicho diagnóstico, planificar el uso sostenible de los pastos, poniendo el acento de manera prioritaria en las necesidades de las explotaciones ganaderas a ellos vinculadas. En este sentido, el plan no pretende imponer los modos de aprovechamiento de los comunales del Valle, sino que, partiendo del conocimiento y la experiencia de los propios agentes implicados en la gestión del territorio y con el apoyo del asesoramiento técnico, busca alcanzar consensos que aseguren un aprovechamiento sostenible de los pastos y permitan definir medidas de mejora del estado de los puertos, de forma que se facilite y refuerce su uso por parte de las explotaciones ganaderas.

Interviene D. Tomás Urzainqui Mina manifestando que va a votar en contra, al considerar que el plan está sesgado y que responde a una imposición del Gobierno de Navarra, exponiendo y solicitando que consten en acta los siguientes motivos:

*1- No se ha tenido en cuenta las necesidades de los ganaderos cuyos ganados pastan en ese lugar. Ganadería extensiva que es imprescindible para revertir el cambio climático y la despoblación.*

*defendatzea eta herri-larreen kudeaketa komuna.*

*3- Nafarroako Gorte subiranoek 1829ko urtarrileko bilkuran, 1841eko eta 1936-1982ko estatu-kolpeak jasan baino lehen, erabaki zuten araudi orokorra ez zela aplikagarria ondasun komunen berezko aprobetxamendua zegoen lekuetan, gurean bezala, non beren akordio, adostasun eta ordenantzen arabera arautzen jarraituko zuten.*

*4- Influentzia-trafikoa, interes orokorrerako erabat ez-beharrezko eta kaltegarria izanik, debekatuta dago Erronkaribarko Batzorde Nagusiaren ordezkari jardutean.*

*5- Parke Naturala behin betiko baztertzeko egin zen bozketan, Bidankozek eta Burgik bakarrik bozkatu zuten haren ezarpenaren alde, eta gainerako bost herriek (Izaba, Uztarroze, Urzainki, Garde eta Erronkari) aurka bozkatu zuten. Hala ere, Ingurumeneko Departamentuaren esku-sartzeak errazten saiatzen ari da, bere garaian baztertutako parke natural haren proposamenean jasotzen zirenak bezalakoak.*

*6- Larreak kudeatzea Erronkaribarko Batzorde Nagusiaren eskumen esklusiboa da, Nafarroako Gobernuak ez du legezko eskumenik; beraz, haren edozein esku-sartze erabat deuseza da. Beste gauza bat da zuzentasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta elkar ulertzea eta lankidetza ona izatea.*

Batzordeburuak hartu du hitza, eta honakoak adierazi nahi izan ditu: batetik, Natur Parkearen inguruan eman zen bozkaren emaitza esaten den moduan eman zenik

*2- La causa principal de la existencia de la mancomunidad roncalesa y de la Junta General es precisamente la defensa de la titularidad del común y ejercer la gestión de los pastos en mano común.*

*3- Las soberanas Cortes de Navarra en sesión de enero de 1829, antes de padecer Navarra los anti forales golpes de estado de 1841 y 1936-1982, legisló que no era aplicable la normativa general, allí donde hubiera un aprovechamiento promiscuo por los vecinos de los bienes comunes, como es el caso del Valle de Roncal dónde se seguirán rigiendo por sus acuerdos, concordias y ordenanzas.*

*4- El tráfico de influencias, absolutamente innecesario y contraproducente para los intereses generales, está prohibido en el ejercicio de la representación mancomunada en la Junta General del Valle de Roncal.*

*5- En la votación, donde se rechazó definitivamente el Parque Natural, solo votaron a favor de su implantación, Vidángoz y Burgi, mientras que los cinco pueblos restantes, Isaba, Uztarroz, Urzainqui, Garde y Roncal votaron en contra. Sin embargo, se continúa tratando de facilitar las injerencias de Medio Ambiente propias de la figura del rechazado parque natural.*

*6- La gestión de los pastos es competencia exclusiva de la Junta General del Valle de Roncal sin que tenga competencia legal propia en ella, el Gobierno De Navarra, por lo que cualquier injerencia del mismo es nula de pleno derecho. Otra cosa es el buen entendimiento y colaboración basado en la equidad y el mutuo respeto.*

Interviene la presidenta y cuestiona que la votación acerca del parque natural tuviese el resultado que se afirma por en el escrito. El representante de Urzainqui pide que se revise el acuerdo y que asumirá lo que se refleje en él. Se aclarará el punto y se dará

zalantzan jartzen du. Urzainkiko ordezkariak eskatzen du akordio hura errebisatzeko eta hor azaltzen dela onartuko duela; bestetik, prozesua parte-hartzailea izan dela, izan ere, abeltzainek egindako proposamenak kontuan hartu dira eta azken batzordean aurkeztutako 38 alegazioak aztertu ziren azken bertsio honetan kontuan hartzeko; eta azkenik, Plana Batzorde Nagusiak berak egin nahi izan duela, Nafarroako Gobernuaren esku-sartzerik gabe, eta horregatik hartu zuela hori idazteko erabakia osoko bilkura batean.

Izabako ordezkariak gaineratu du, ordenantzak eguneratzeari eta larreak kudeatzeko plana egiteari ekin zitzaionean, zenbait abeltzainek idatziz adierazi zutela larreei buruzko plan bat prestatzen ari zirela; eta horregatik, plan hura Batzordeari aurkezteko aukera aurreikusi zela, hori oinarri gisa hartzeko, baina azkenean ez zuten proposamenik aurkeztu.

Jarraian, Uztarrozeko bortuko larreak kudeatzeko Plana onesteko bozketa egin da, eta Batzordeak gehiengoz erabaki du hori onestea, Urzainkiren aurkako botoarekin.

5. BATZORDEBURUAREN ETA BATZORDEEN INFORMAZIOA

Batzordeburuak "Erresilientzia sustraiak" izeneko proiektuaren berri eman du, NUPek eta Cádizko eta Castellóko unibertsitateek sustatua eta 2030 Agendak diruz lagundua. Nafarroan, Auñamendi eremuan, Agoitzen eta Erronkaribarren garatuko da proiektua. Horren helburua da bi tailer egitea, eremu horietako auzolaneko jardunbide egokiak ezagutzeko eta horiei balioa emateko. Batzordetik aipatu zaie

cuenta de ello en la siguiente sesión. Además dice querer dejar constancia de que el proceso sí ha sido participativo, que se han tenido en cuenta las propuestas realizadas por los ganaderos, que en la última comisión se estuvieron analizando las 38 alegaciones para tenerlas en consideración en esta versión que se presenta, y que la redacción del plan responde a la voluntad de la propia Junta General, sin que exista injerencia del Gobierno de Navarra, existiendo acuerdo en sesión en este sentido. El representante de Isaba añade que, cuando se retomaron en la junta las conversaciones sobre la necesidad de elaborar un plan de gestión pascícola y actualizar las ordenanzas, se recibió por parte de varios ganaderos una carta en la que se señalaba que estaban trabajando en la elaboración de un plan de pastos propio. En ese contexto, se contempló la posibilidad de que dicho plan fuera presentado ante la junta y sirviese de base para que la junta posteriormente lo aprobase, sin que finalmente se llegara a presentar ninguna propuesta.

A continuación, se pasa a votación la aprobación del Plan de Gestión Pascícola del puerto de Uztarroz, quedando aprobado por mayoría con el voto en contra de Urzainqui.

5º.-INFORMACIÓN DE PRESIDENCIA Y COMISIONES.

Se informa por la presidenta sobre el proyecto denominado "Raíces de resiliencia", promovido por las Universidades de Cádiz, Castellón y la UPNA, subvencionado en el marco de la Agenda 2030. En Navarra el proyecto se desarrollará en las zonas de Auñamendi, Aoiz y Roncal. El objetivo del proyecto es la realización de dos talleres orientados a conocer y poner en valor buenas prácticas de trabajo comunitario en dichas zonas. Desde la Junta se trasladó que en el Valle se han realizado numerosos estudios previos, solicitando que los mismos sean tenidos en cuenta, y se indicó que los proyectos se desarrollarán contando con personas y recursos

aurretiaz horrelako azterlan ugari egin direla, eta eskatu zaie horiek kontuan hartzeko. Adierazi dutenez, proiektuak bertako pertsonekin eta baliabideekin garatuko dira. Aurreikusita dago martxo-apirilean tailer bat egitea, eta ez omen du lan handirik ekarriko. Azkenik, jakinarazi da gaur bertan jaso dela proiektuaren aurkezpena eta aiza-bulguei igorriko zaiela.

Batzorde guztiei eskatu zaie Plangintza zehazteko bileran atera ziren proiektuei lehentasuna emateko, ondoren Cedernarekin bilera bat egiteko.

Jakinarazi da gaur Haur Eskolako ikasturteari buruzko balorazio bilera egin dela. Bertan, agerian geratu da hasiera zaila izan dela, besteak beste, langile berriak sartu direlako eta matrikula kopurua aurreikusitakoa baino handiagoa izan delako.

Azkenik, idazkariak jakinarazi du Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren auto bat jaso dela, urtarrilaren 22an emandako 13/2025 Epaiaren aurka aurkeztutako kasazio autonomikoko errekurtsoa onesten ez duena (422/2024 apelazioa). Epai horrek baietsi egin zuen apelazio errekurtsoa, eta errebokatu zuen Administrazioarekiko Auzien Iruñeko 3. Epaitegiaren 2024ko ekainaren 20ko 132/2024 epaia (245/2023 prozedura laburtua), zeinak ezetsi egin baitzuen Burgiko Udaleko Alkatetzaren ebazpen baten aurka jarritako errekurtsoa, jabetza bat abeltzaintzako hesi batekin ixteari buruzkoa.

<u>6. GALDE-ESKEAK</u>

Proposatu da Endesari kexa-idazki bat bidaltzea, linea elektrikoa behar bezala ez garbitzeagatik eta hornidura elektrikoaren

del propio territorio. Está prevista la realización de un taller entre los meses de marzo y abril, señalándose que no supondrá un esfuerzo significativo. Se indica asimismo que en el día de hoy se ha recibido la presentación del proyecto, la cual será trasladada a los ayuntamientos.

Se solicita que las distintas comisiones prioricen los proyectos que surgieron en la reunión de planificación celebrada previamente, con el fin de poder convocar una reunión con Cederna para su tratamiento.

Se informa de que en el día de hoy ha tenido lugar la reunión de valoración del curso 0-3 años, en la que se ha puesto de manifiesto que el inicio ha sido complicado, debido, entre otras cuestiones, a la incorporación de nuevo personal y a un número de matrículas superior al previsto.

Finalmente, el Secretario informa a la Junta General de que se ha recibido un auto por el que se inadmite el recurso de casación autonómico presentado contra la Sentencia 13/2025, de 22 de enero, dictada por la Sala del Tribunal Superior de Justicia de Navarra (apelación 422/2024). Dicha sentencia estimó el recurso de apelación y revocó la sentencia nº 132/2024, de 20 de junio, del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Pamplona (procedimiento abreviado 245/2023), que había desestimado el recurso interpuesto contra una resolución de la Alcaldía del Ayuntamiento de Burgui relativa al cierre de una propiedad mediante vallado ganadero.

.

<u>6º.-RUEGOS Y PREGUNTAS.</u>

Se propone la redacción de un escrito de protesta dirigido a Endesa por las limpiezas insuficientes del tendido eléctrico y los cortes de suministro eléctrico producidos. Tras la

etenengatik. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da aipatutako idazkia igortzea.

Gai-zerrendatik kanpo, eta aldez aurretik presakotzat joz, honako gai hau aztertu da:

**Erronkaribarko Batzorde Nagusiaren bilkuretan eta bileretan parte hartzegatiko ordainsariak arautzeko erabaki proposamena**

Batzordekideek bilkuretan eta bileretan parte hartzegatiko ordainsariak eta konpentsazioak arautzen dituen proposamen hau aurkeztu da:

Batzordeburu kargua ez da beteko dedikazio esklusiboan edo partzialean, soilik bilkuretara eta bileretara joateagatiko ordainsariak jasoko ditu: 350 euro bilkuretan parte hartzeagatik, eta 150 euro batzordeetako edo kide anitzeko beste organo batzuetako bileretara joateagatik. Urtean, gehienez, 5.684 euro izanen dira; hilean, gehienez, 473,66 euro. Hilean jaso ez den gaindikina badago, hurrengo hilabeteetan jaso ahal izanen da, betiere urteko gehieneko kopurua gainditu gabe. Argitu da proposamenak ez duela aldatu ordainsariaren guztizkoa, hori jasotzeko modua arautu baizik. Bertaratutakoek adierazi dute beharrezkoa dela zenbateko hori berrikustea, gutxiegi izan daitekeelako, karguak eskatzen duen denbora kontuan hartuta. Ordainsaria kobratzeko modua onetsi da, ez aldiz gehieneko kopurua, urteko aurrekontuarekin batera onetsiko dena.

Bestalde, proposatu da kargurik ez duten batzordekideek ordainsari hauek jasotzea: 15 euro ibarrean izandako bilera bakoitzeko; eta 30 euro gehi kilometroak ibarretik kanpo izandako bilera bakoitzeko,

deliberación, se acuerda por unanimidad proceder a la redacción del citado escrito.

Fuera del orden del día y previa declaración de urgencia se tratan los siguientes asuntos:

**Propuesta de acuerdo regulador de asistencias e indemnizaciones de la Junta General del Valle de Roncal.**

Se presenta a la Junta General la siguiente propuesta relativa a la regulación de las indemnizaciones y compensaciones por asistencia a sesiones y reuniones de sus miembros:

Se explica que el cargo de Presidencia de la Junta General del Valle de Roncal no se desempeñará en régimen de dedicación exclusiva ni parcial, percibiendo retribuciones únicamente por asistencia a sesiones, fijándose 350 € por asistencia a sesiones de la Junta y 150 € por asistencia a reuniones de Comisiones u otros órganos colegiados, con un límite anual de 5.684 € y máximo mensual de 473,66 €, pudiendo acumularse cantidades no percibidas en meses posteriores sin superar el límite anual. Se aclara que no existe cambio en la cuantía total de indemnización para la Presidencia, y que el acuerdo únicamente regula la forma de percibir las indemnizaciones correspondientes. Tras esta propuesta se valora por los asistentes que es necesario revisar estas cantidades por entender que pueden ser insuficientes teniendo en cuenta el tiempo que se invierte. Queda aprobada la forma en que se cobraran estas dietas pero queda pendiente de aprobación las cantidades máximas, que serán aprobadas junto con el presupuesto.

Asimismo, se propone que los junteros y junteras sin cargo específico percibirán 15€ por reuniones celebradas dentro del Valle y 30€ por reuniones fuera del Valle, más kilometraje según las tablas de retribución aprobadas por el Gobierno de navarra, debiendo de presentar para su cobro relación de asistencias a

Junta General del Valle de Roncal
Erronkaribarko Batzorde Nagusia

Nafarroako Gobernuak onetsitako ordainsari taulen arabera. Kobratzeko, Idazkaritzan aurkeztu beharko da parte hartu den bileren zerrenda. Batzordekideek proposatu dute kopuru horiek handitzea, aspalditik eguneratu gabe daudelako. Hori dela eta, kopuru hauek onetsi dira: 20 euro ibarrean izandako bilera bakoitzeko; eta 30 euro gehi kilometroak ibarretik kanpo izandako bilera bakoitzeko.

Oposizioetan, lehiaketetan edo langileak hautatzeko edo kontratatzeko beste organo batzuetan epaimahaikide izatea indarrean dagoen foru-araudiaren arabera ordainduko da. Kilometroak Erronkaribarko Etxetik zenbatuko dira.

Interesdunei, kontu-hartzailetzari eta langileen zerbitzuari erabakiaren berri emanen zaie. Akordioak indarrean jarraituko du Batzorde Nagusiak beste erabaki bat hartu arte.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 19:45ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, eta honako akta hau idatzi da.

Eta dagokion tokian jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin da, ontzat emana eta zigilua jarrita, eta ibarreko Aiza Bulguei bidali zaie, iragarki-oholetan jar dezaten.

Erronkarin, 2026ko otsailaren 9an

Secretaría. Del mismo modo los asistentes proponen que se aumenten las cantidades que llevan años sin revisarse. Se propone y se aprueba que los junteros y junteras perciban 20€ por reuniones celebradas dentro del Valle y 40€ por reuniones fuera del Valle, en este último caso añadiéndose el kilometraje correspondiente.

La participación en tribunales de oposición, concursos u otros órganos de selección de personal o contratación se remunerará conforme a la normativa foral vigente. El kilometraje será desde la Casa del Valle.

Se dispone que el presente acuerdo se notifique a los interesados y a los servicios de intervención y personal, y mantendrá su vigencia hasta que la Junta General adopte otro que lo modifique.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19:45 de la tarde y del día señalado al inicio, por la Sra. presidenta se levanta la sesión, redactándose la presente Acta.

Y para que conste donde proceda, se expide la presente certificación, Visada y Sellada, y se envía a cada uno de los Ayuntamientos del Valle, para su exposición en el Tablón de Anuncios, en Roncal a 09 de febrero de dos mil veintiséis.